



DEKRETUA

Gaia: Diru-laguntzak Lekeition bizi diren 18-35 urte bitarteko gazteei zuzendutako etxebizitzaren alokairurako.

Lekeition bizi diren 18-35 urte bitarteko gazteei zuzendutako etxebizitzaren alokairurako ematen diren diru-laguntzak ordenantza bidez arautzen dira.

Ordenantzan bertan agertzen da urtero dekretu bidez deialdia egingo dela eta dekretuan bertan agertuko dela aurrekontuetako partidaren zenbatekoa, eskaerak aurkezteko epea, baita onuradunek justifikatzeko duten ohiko azken epea ere.

Nik, Lekeitioko Udaleko alkateak, hau ikusita, hauxe

ERABAKI DUT:

1. Lekeition bizi diren 18-35 urte bitarteko gazteei zuzendutako etxebizitzaren alokairurako ematen diren diru-laguntzen 2020rako deialdia zabaltzea.
2. 2020an 480.1520.100 partidaren 25.500€ egongo direla diru-laguntza honetara zuzenduak.
3. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera ordaindutako alokairu errentak izango direla kontutan.
4. Eskariak aurkezteko epea 2020ko otsailaren 3tik azaroaren 16ra arte luzatzea.
5. Gaur eguneko batzordeen antolaketa kontutan izanda, *Gizarte Politikak Batzordeburuak* hartuko ditu bere gain, ordenantzan *Gazteria Batzordeburuari* jarritako betekizunak.
6. Onuradunek diru-laguntza justifikatzeko izango duten ohiko azken eguna 2020ko abenduaren 31 izango dela. Epe hau igarota ziurtagiriak ez badira aurkeztu, onuradunak diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdu egingo du.
7. Akordu honi hedapena ematea interesatuek eskariak aurkez ditzaten.

Lekeition, 2020ko urtarrilaren 22an

Koldo Gollia Markuerkiaga
Lekeitioko Udaleko alkatea